

UNIBASQEN KOMUNIKATUA, UPV/EHUKO ORDAINSARI-OSAGARRI GEHIGARRIEN EBALUAZIO-PROTOKOLOAREN EGOERARI BURUZKOA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 2015eko ekainaren 4ko ordainsari-osagarriak ebaluatzeko eta ondoren esleitzeko Protokoloaren II. Eranskina baliogabetu ondoren, Unibasq-en Aholkularitza Batzordeak berri bat egin zuen, 2018ko irailaren 7ko EHAA-n argitaratutakoa. Behin argitaratutakoan, bi prozedura judizial desberdin hertsatu zituen Langile Komizioak sindikatuak (CCOO aurrerantzean):

Batetik, **CCOOK Epaia betearazteko intzidente bat aurkeztu zuen**, Unibasqek Epaia betearazteko prozedura egokia eratu gabe zeukala uste baitzuen, eta Protokolo berriak autoebaluaziorako parametroen argitasun-irizpideak betetzen ez zituelakoan zegoelako, adituaren txosten baten bidez argudiatuta.

Bestetik, **CCOOK administrazioarekiko auzi-errekurtso bat aurkeztu zuen Protokolo berriaren aurka** (585/2018 prozedura arrunta da, eta Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. Epategian ari dira aurrera eramaten), indarreko araudiak eskatutako betekizunak ez zituela betetzen uste baitzuen, eta txosten bat eta proposamen alternatibo bat aurkeztu zuen, intzidenteko aditu berak aurkeztutakoa.

Unibasq ordezkatzen duten zerbitzu juridikoek alegazioak aurkeztu dituzte bi kasuetan.

Bigarren prozedurari dagokionez, non CCOOK Protokolo berriaren aurka errekurritu duen, guk haren edukia defendatu dugu, xehetasunez eta ebidentziaz argudiatuz Protokoloak badituela parametro argiak, horrelako prozesu bat behar bezala autoebaluatzeko aukera ematen dutenak. Era berean, gure harridura erakutsi dugu prozedura horretan CCOOK nahi duelako Unibasqek bere egitea sindikatuaren aditu batek egindako Protokolo bat, hori legez aurkakoa izango bailitzateke, Unibasq-en Aholkularitza Batzordeari esleitzen baitio legeak eskumen hori. **Bigarren prozedura hori izapidetze-prozesuan dago une honetan, froga-fasea noiz egingo zain.**

Betearazteko intzidenteari dagokion lehen prozedura, aldiz, Auto batekin ebatzi da jada, Unibasqek eta dagozkion zerbitzu juridikoek espero ez genuen emaitza batekin. Zehazki, maiatzaren 31ko 86/2019 Autoaren bitartez, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. Epategiak honako hau dio Zuzenbidezko Bigarren Oinarrian: “Adierazitakotik naturaltasunez ondorioztatzen da betearazpenpeko alderdiak epaia betearazteko dagozkion jarduera guztiak gauzatu dituela, epai horrek 2015eko EKAINAREN 4an UNIBASQEK ARGITARATUTAKO UPV/EHUren IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN ORDAINSARI-OSAGARRI INDIBIDUALAK

EBALUATU ETA ESLEITZEKO PROTOKOLOAREN II. ERANSKINA BALIOGABETZEKO agintzen duen heinean, eta Unibasqek baliogabetze hori aitortu, deklaratu eta onartu du, eta horrenbestez, UPV/EHUren Gizarte Kontseiluaren 2017ko urriaren 25eko Akordio bidez onartutako ordainsari-osagarrien aitortzarako deialdiari dagozkion merezimenduen ebaluazioa ezin du gauzatu, II. Eranskin hori 2018ko ekainaren 27ko Ebazpen bidez onartutako Protokoloarekin ordeztu delarik, eta, beraz, puntu horretan, betearazpena ongi bete dela ebatzi behar da”. Hau da, **Autoaren arabera Epaiaren betearazpena zuzena izan da.**

Alabaina, eta hau da harrizkoa iruditu zaiguna, aurrekoaz gain **Autoak adierazten du Unibasqek gaiaren funtsari buruzko alegazioa aurkeztu beharko zuela.** Autoaren arabera, CCOOk adituaren txosten bat aurkeztu duenez Protokoloak autoebaluaziorako biderik ez duela ematen defendatzeko, eta “*betearazpenpeko alderdiak haren indarrari aurre egiteko gutxieneko frogahalegin bat egin ez duenez*”, **CCOOK aurkeztutako intzidentea partzialki baiesten du, eta Unibasqek 2018/09/07ko EHAAn argitaratutako Protokolo berria baliogabetzen.**

Erabaki judizialen gehieneko errespetutik abiatuta, **Unibasqen ez gaude ados auto horrekin, eta epaia betearazteko intzidente batean baieztapen hori egitea ez zaigu bidezkoa iruditzen.** Lehenik, erantzun-idazkian egiaztatu genuelako Protokolo berriaren elaborazioan kontuan hartu zirela aurreko Protokoloa baliogabetzeko Epaiak baliatutako arrazoiak, eta hori da benetan esanguratsua betearazpen-intzidente batean. Bigarrenik, Unibasqek Protokoloaren aurkako administrazioarekiko auzien errekurtsu baten barruan aurkeztu behar dituelako –eta horrela egin dugu– frogak, zantzuak eta ebidentziak erakusteko Protokoloak pertsona eskatzaileen autoebaluazioa ahalbidetzen duten parametro argi eta zehatzak biltzen dituela, betearazpen-intzidenteari emandako erantzunean Unibasqen zerbitzu juridikoek alegatutakoari jarraikiz: “*Protokolo berri baten onarpena, edo aurrekoa ordeztuko lukeen II. Eranskin baten onarpena ere bai, ez dira prozedura honetan emandako epaiaren betearazpen-intzidentean ezagutu beharreko alderdiak, egintza hori (Protokolo berriaren onarpena gertatutakoan), egintzaren inpugnatu nahi edozein puntu administrazioarekiko auzien dagokion errekurtsuaren bidez artikulatu behar baita*”, kontuan izanda gainera CCOOk iragarria zuela zegokion administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarriko zuela.

Egoera horren aurrean, Unibasqek apelazio-errekurtsu bat aurkeztu du Auto horren aurka, baina errekurtsu horrek ezin du ebazpen judiziala geldiarazi, eta beraz, Protokoloa behin-behinekoz baliogabetuta dago. Horrek zoritxarrez Unibasqek zabalik zegoen 2017ko deialdiaren ebaluazio-prozesua ezin duela osatu dakar, zeinaren ebaluazioak UPV/EHUri igortzear geundela Autoaren jakinarazpena jaso genuenean, eta horrekin batera, deialdia egin duen organoak –UPV/EHUren Gizarte Kontseiluak– ezin duela osagarrien ezein esleipenik egin errekurtsu hori ebazten den arte.

Nolanahi ere, apelazio-errekurtsua jartzearekin batera Protokoloaren baliogabetzea kautelaz eteteko eskatuko dugu, egindako ebaluazioak amaitu ahal izateko, baina litekeena da horrelakorik ez lortzea apelazio-errekurtsua ebatzi arte. Eskari horren bidez, lortu nahi dugu

2017ko deialdiko pertsona eskatzaileak kaltetuak ez izatea ebaluaziorik egin ezin delako, eta eskari hori helaraziko dio auzitegiak alderdi eskatzaileari bere iritzia eman dezan.

Nolanahi ere, prozesuaren geldiarazte honek ez du ezerein kasutan ere Protokoloaren egokitasuna aurretik juzgatzen, CCOOK jarritako bigarren prozedura judizialean erabakiko baita hori. Unibasq-en Aholkularitza Batzordeak, zeinak errekursoaren egoera ezagutzen duen, konbentziturata dago Protokolo horrek ongi erantzuten diela UPV/EHUko Irakasle eta Ikertzaileen ordainsari-osagarriari buruzko urriaren 17ko 209/2006 Dekretua aldatzen duen martxoaren 29ko 64/2011 Dekretuaren eskakizunei. Era berean, Unibasqek bere harridura erakutsi du eskatzaileak bere protokoloa haren adituek proposatutakoarekin ordeztu nahi izatearekin, eta bere desadostasuna adierazi du inolako kualifikazio juridikorik ez duen pertsonak legezko arazo bati buruz erabakitzearekin, bere Protokolo-proposamena aurkezteko eta juzgatzeko eskumena autoesleituta.

Edozein kasutan, benetan sentitzen dugu gure borondatearekin inolako zerikusirik ez duen egoera hau, jabetzen baikara benetan konplikaturata dela. Horregatik, Unibasqen gure eskuetan dagoen guztia egingo dugu baliogabetze horiek eragiten ari diren kalteak minimizatzen.